BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

151. zk., 2022ko abuztuaren 8a, astelehena

N.º 151, lunes 8 de agosto de 2022

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

**3542**

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 1ekoa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez formulatzen baita Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoa, bizitzeko kanpoko eremuak egin ahal izateko lehendik dauden eraikinetan (Araba).*

AURREKARIAK

2022ko maiatzaren 4an, Vitoria-Gasteizko Udalak eskabide bat aurkeztu zion Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntualaren gainean, bizitzeko kanpoko eremuak egin ahal izateko lehendik dauden eraikinetan (aurrerantzean, Plana). Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu ziren, tartean Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan ezarritako edukiarekin.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikulua aplikatuta, 2022ko maiatzaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei. Jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Era berean, Vitoria-Gasteizko Udalari prozedura hasi zela jakinarazi zitzaion.

Espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren

## OTRAS DISPOSICIONES

### DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

**3542**

*RESOLUCIÓN de 1 de julio de 2022, de la Viceconsejera de Sostenibilidad Ambiental, por la que se formula informe ambiental estratégico de la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, para posibilitar la ejecución de espacios exteriores vivideros en edificios existentes (Álava).*

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 4 de mayo de 2022, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz completó ante la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular la solicitud del procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada de la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para posibilitar la ejecución de espacios exteriores vivideros en edificios existentes (en adelante, Plan). La solicitud se acompañó de diversos documentos entre los cuales se encontraba el borrador del Plan y el documento ambiental estratégico, con el contenido establecido en los artículos 16 y 29 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre.

En aplicación del artículo 75 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, con fecha 17 de mayo de 2022, la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco inició el trámite de consultas a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas, con el resultado que obra en el expediente. A su vez, se informó al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz del inicio del procedimiento.

Asimismo, la documentación de la que consta el expediente estuvo accesible en la web del Departamento de Desarrollo Económico,

webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egoki jotzen zituen oharrak egin ahal izateko.

Sostenibilidad y Medio Ambiente para que cualquier interesado pudiera realizar las observaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Legezko erantzun-epea amaituta, eta espedientean jasotako dokumentazio teknikoa aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluari jarraikiz.

Una vez finalizado el plazo legal de respuesta y analizada la documentación técnica del expediente, se constata que el órgano ambiental cuenta con los elementos de juicio suficientes para formular el informe ambiental estratégico, de acuerdo con el artículo 75 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluari jarraikiz, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, eta horien aldaketak eta berrikuspenak, ingurumena babesteko maila handi bat bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 60 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, se someterán preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación ambiental los planes, programas y proyectos, y sus modificaciones y revisiones, que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente, con el fin de garantizar un elevado nivel de protección ambiental y de promover un desarrollo sostenible.

Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntuala, bizitzeko kanpoko eremuak egin ahal izateko lehendik dauden eraikinetan, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.2 artikuluan aipatutako kasuetan sartzen da; bertan aurreikusten da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasa behar diren plan eta programak, honako hauek zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoaren arabera, edo plan edo programen gaineko ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharra, haiek ingurumenerako eragin nabarmenak ekar litzaketelako.

La modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para posibilitar la ejecución de espacios exterioresivideros en edificios existentes, se encuentra entre los supuestos del artículo 72.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, donde se establecen los planes y programas que deben ser sometidos a evaluación ambiental estratégica simplificada por el órgano ambiental, a los efectos de determinar que el plan o programa no tiene efectos significativos sobre el medio ambiente, en los términos establecidos en el informe ambiental estratégico, o bien, que el plan o programa debe someterse a una evaluación ambiental estratégica ordinaria porque pueda tener efectos significativos sobre el medio ambiente.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura 75. artikuluan dago araututa, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideekin bat.

El procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada se regula en el artículo 75, de conformidad con los criterios establecidos en el Anexo II.C de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre.

Planaren dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, eta kontuan hartuta ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena eta indarreko araudian ezarritako alderdien araberakoa dela, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, berau baita eskumena duen organoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera. Txosten horretan, Planak ingurumenean ondorio

Examinada la documentación técnica del Plan, y a la vista de que el documento ambiental estratégico resulta correcto y se ajusta a los aspectos previstos en la normativa en vigor, la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular, órgano competente de acuerdo con el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, procede a dictar el presente informe ambiental estratégico, a fin de valorar si el Plan puede tener efectos significativos

adierazgarririk izan dezakeen ala ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen, edo, bete behar ez badu, Plana garatzeko zer baldintza ezarri behar diren ingurumena behar bezala babestearren.

sobre el medio ambiente, y por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o bien, en caso contrario, establecer las condiciones en las que debe desarrollarse el Plan para la adecuada protección del medio ambiente.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

Vistos la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y demás normativa de general y concurrente aplicación,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntualari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa egitea, bizitzeko kanpoko eremuak egin ahal izateko lehendik dauden eraikinetan, jarraian jasotzen diren baldintzetan:

Primero.– Formular informe ambiental estratégico de la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para posibilitar la ejecución de espacios exteriores vivideros en edificios existentes, en los términos que se recogen a continuación:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak. Eragina jasan lezakeen eremuaren ezaugarriak. Aurreikusitako ingurumen-ondorioak.

A) Descripción del Plan: objetivos y actuaciones. Características del área probablemente afectada. Efectos ambientales previstos.

Aldaketaren helburu nagusia da Vitoria-Gasteizko HAPOaren arau orokorretako artikulu batzuk aldatzea, esku hartzeko irizpideak eta neurriak zehazteko eta arautzeko, lehendik dauden etxebizitzetan bizitzeko kanpoko eremuak eraikitzea ahalbidetzeko eta bermatzeko, edo egun daudenak handitzeko, etxebizitzen bizigarritasuna hobetzeko.

El objeto principal de la modificación es cambiar algunos artículos de las normas generales del PGOU de Vitoria-Gasteiz para determinar y regular los criterios y medidas de intervención que posibiliten y garanticen la construcción de espacios exteriores vivideros en las viviendas existentes o aumentar los que actualmente existen para mejorar la habitabilidad de las viviendas.

Ingurumen-dokumentu estrategikoak hiru garapen-aukera aurkezten ditu: esku-hartzerik ez egiteko aukera (0 aukera); bizitzeko kanpoko eremuak eraikigarritasunaren eta okupazioaren zenbaketa aldatu gabe egiteko behar diren parametroak aldatzeko aukera; eta bizitzeko kanpoko eremuak eraikigarritasunaren eta okupazioaren zenbaketatik salbuesteko aukera, elementu horiek eraikinaren bizigarritasuna hobetzen laguntzen baitute, eta gainerako baldintzak zer neurritan alda daitezkeen arautzeko aukera. Azken aukera hori hautatu da. Ingurumenaren ikuspuntutik, aukera guztiak ia-ia berdinak dira.

El documento ambiental estratégico (DAE) presenta tres posibles alternativas de desarrollo: la alternativa de no intervención (alternativa 0) y la alternativa de modificar los parámetros necesarios para ejecutar espacios exteriores vivideros sin modificar el cómputo de la edificabilidad ni el de ocupación; y la alternativa de eximir del cómputo de la edificabilidad y de la ocupación los espacios exteriores vivideros, elementos que favorecen la mejora de la habitabilidad del edificio, y regular en qué medida se pueden modificar el resto de condiciones. La alternativa elegida es esta última. Desde el punto de vista medioambiental todas las alternativas son prácticamente iguales.

Aurreikusten da aldaketaren zehaztapenei lotutako jarduketak lehendik dauden eraikinetako kanpoko eremuak eraikitzeko/aldatzeko obrei lotutakoak izango direla.

Se prevé que las actuaciones asociadas a las determinaciones de la modificación serán las asociadas con las obras de construcción/modificación de los espacios exteriores divideros en los edificios existentes.

Aldaketa honen esparrua integrala da, eta Vitoria-Gasteizko udalerriaren hiri-lurzoru guztian aplikatzekoa da; zehazki, lehendik dauden bizitegi-eraikin kolektiboetan. Nolanahi ere, bizigarritasuna hobetzeko esku-hartze horiek ez dira baimenduko Babes Araubide Bereziaren mendeko Eraikinen Katalogoan sartuta dauden eraikinetan, baldin eta honako hauetan badaude: Babes Integrala, Egiturazko Kontserbazioa eta Birgaitzea/Berritzea nahitaezko fatxada-kontserbazioarekin (kasu horretan, kontserbatu beharreko fatxadari soilik eragiten dio). Halaber, ez dira baimenduko babes berezi eta ertainekotzat deklaratutako eraikinetan, eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta daudenetan.

El ámbito de la presente modificación tiene un carácter integral y es de aplicación en todo el suelo urbano del municipio de Vitoria-Gasteiz, concretamente, en los edificios residenciales colectivos existentes. En cualquier caso, estas intervenciones de mejora de habitabilidad no se autorizan en edificios incluidos en el Catálogo de Edificios sometidos al Régimen Especial de Protección incluidos en: Protección Integral, Conservación Estructural y Rehabilitación/Renovación con conservación de fachada obligatoria (en este caso únicamente afecta a la fachada a conservar). Tampoco se autorizan en edificios declarados de protección especial y media y, por tanto, incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.

Jarduketa-eremuan ez da intereseko natura-elementurik, ur-ibilgurik eta abarrik identifikatzen.

En el ámbito de actuación no se identifican elementos naturalísticos de interés, cursos de aguas, etc.

Ez da identifikatu planteatutako jarduketen eraginpean egon daitekeen kultura-ondareko elementurik.

No se han identificado elementos del patrimonio cultural que pudieran ser afectados por las actuaciones planteadas.

Baztertu egiten dira lurzoru urbanizaezineko ingurune naturalen berezko afekzioak, hala nola habitat-, landaretza- eta fauna-afekzioa, nekazaritza arloko afekzio sektoriala, eta abar, ez baita interakziorik gertatzen aldaketaren eta ingurumeneko gisa horretako alderdien artean. Ez dira kontuan hartu intereseko flora- eta fauna-espezieei, Batasunaren intereseko habitatei, naturagune babestuei eta ondare arkeologikoari eragitea bezalako afekzioak, uste delako aipatutako lurzatietan ez dagoela horrelako afekziorik.

Se descartan las afecciones propias de entornos naturales en suelo no urbanizable, tales como la afección a hábitats, vegetación, fauna, afección sectorial agraria, etc., al no interaccionar la modificación con este tipo de elementos ambientales. No se han considerado impactos como la afección a especies de flora y fauna de interés, HIC, espacios naturales protegidos y patrimonio arqueológico por considerarse inexistente dicha afección en las parcelas mencionadas.

Ingurumen-inpaktu nabarmenenak lurzati bakoitzean egingo diren obren garapenaren ondoriozko eraikuntza-fasean zehar aurreikusten dira.

Los impactos ambientales más destacables, se prevén durante la fase de construcción derivados del desarrollo de las obras que se van a realizar en las diferentes parcelas.

Eremuaren ezaugarriengatik, intereseko natura-elementurik ez izatean, ez da espero ingurumen-inpaktu adierazgarririk gertatzea plana garatzeko egin nahi diren jarduketen ondorioz.

Debido a las características del ámbito, carente de elementos naturalísticos de interés, se estima que no se van a producir impactos significativos sobre el medio ambiente derivados de las actuaciones que se recogen para el desarrollo del plan.

B) Planaren ezaugarri teknikoak eta ingurumenekoak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.3 artikuluaren arabera, lege horren II.C eranskinean ezarritako irizpideak

B) Una vez analizadas las características técnicas y ambientales del Plan y de conformidad con el artículo 75.3 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, tras la aplicación de los criterios que establecidos en el Anexo II.C de la citada Ley, se

aplikatu ostean, zehaztu da Planari ez zaiola egin behar ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik.

Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, Planak ingurumenean ondorio kaltegarri esanguratsurik izan ez dezan eta Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharrik egon ez dadin, baldin eta ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzen badira, betiere. Aldaketa puntual horren xedea da bizitzeko kanpoko eremuak egin ahal izatea lehendik dauden eraikinetan.

Neurri babesle eta zuzentzaileak indarrean dagoen araudiaren arabera ezarriko dira, ebazpen honetan zehaztutakoaren arabera eta, aurrekoaren aurkakoa ez den guztian, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta Planean bertan adierazitakoaren arabera.

Horri dagokionez, ez da beharrezkotzat jotzen ebazpen honetan ingurumen-dokumentu estrategikoan proposatutakoez gain beste neurri batzuk sartzea. Obrak egiteko fasean gauzatu beharreko gomendioak eta jarduketak dira gehienbat neurri horiek.

Bigarrena.– Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntualak –bizitzeko kanpoko eremuak egin ahal izateko lehendik dauden eraikinetan– ondorio kaltegarri esanguratsurik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Vitoria-Gasteizko Udalari.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Bosgarrena.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikuluak ezarritakoaren arabera, ingurumen-txosten estrategiko honek indarra galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko epean onartzen ez bada Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntuala, bizitzeko kanpoko eremuak

determina que el Plan no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

En la presente Resolución se establecen las siguientes medidas protectoras y correctoras en orden a evitar que el Plan pueda tener efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y no sea necesario que la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para posibilitar la ejecución de espacios exteriores vivideros en edificios existentes, se someta a evaluación ambiental estratégica ordinaria, siempre y cuando se incorporen al mismo las medidas protectoras y correctoras establecidas.

Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con la normativa vigente, con lo establecido en la presente Resolución y, en lo que no se oponga a lo anterior, de acuerdo con lo recogido en el documento ambiental estratégico y en el propio Plan.

A este respecto, no se considera necesario la incorporación en la resolución de medidas adicionales a las propuestas en el documento ambiental estratégico, centradas en recomendaciones y actuaciones a desarrollar en la fase de ejecución de las obras.

Segundo.– Determinar que, de acuerdo con los términos establecidos en este informe ambiental estratégico, y siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras establecidas en la presente Resolución, así como las planteadas por el promotor que no se opongan a las anteriores, no se prevé que la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para posibilitar la ejecución de espacios exteriores vivideros en edificios existentes, vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

Tercero.– Comunicar el contenido de la presente Resolución al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Cuarto.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Quinto.– De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 75.5 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios sí, una vez publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, no se hubiera procedido a la aprobación de la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz para

egin ahal izateko lehendik dauden eraikinetan. Kasu horretan, berriro eman beharko zaio hasiera Planaren ingurumen-ebaluazioaren prozedurari, ingurumen-organoari indarraldia luzatzeko eskatzen zaionean salbu. Hala gertatuz gero, ingurumen-organoak, hala badagokio, ingurumen-txosten estrategikoaren beste indarraldi bat xedatuko du, erregelamenduz ezarritako moduan.

posibilitar la ejecución de espacios exteriores vivideros en edificios existentes, en el plazo máximo de cuatro años. En ese caso, deberá iniciarse nuevamente el procedimiento de evaluación ambiental del Plan salvo que solicite la prórroga de su vigencia al órgano ambiental. En este supuesto, el órgano ambiental otorgará, en su caso, un nuevo plazo de vigencia del informe ambiental estratégico en los términos que se determinen reglamentariamente.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 1a.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de julio de 2022.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria ez dagoelako, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.

Por ausencia del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, y de conformidad con la Disposición Adicional Primera del Decreto 68/2021 de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

La Viceconsejera de Sostenibilidad Ambiental,
AMAIA BARREDO MARTÍN.